

# DEIERRIKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUN- EGOERARI BURUZKO DIAGNOSTIKOA

DEIERRIKO UDALA

PROIEKTUA: BERDINTASUNERAKO BIDEA DEIERRIN

Laguntza teknikoa:

**BerHezi**

consultoria · igualdad



Ayuntamiento  
del Valle de Yerri

Deierriko  
Udala

Finantziazioa:

Nafarroako  Gobierno  
Gobernua de Navarra

SUBVENCIONA INSTITUTO NAVARRO PARA LA IGUALDAD  
NAFARROAKO BERDINTASUN INSTITUTUAK LAGUNDUTA

1. Sarrera
  - a. Justifikazio teorikoa
  - b. Arau-esparrua
2. Metodologia
  - a. Proiektuaren helburuak
  - b. Iturriak eta tresnak
  - c. Informazioa lortzea
3. Deierri buruzko informazio orokorra
4. Berdintasunaren egoeraren analisisa eskualdean
  - a. Inkestak
  - b. Elkarrizketak
5. Diagnostikoaren ondorioak
6. Ekarpinak eta gomendioak
  - a. Genero-zeharkakotasuna eta gobernantza
  - b. Emakumeen ahalduntzea, parte-hartze soziopolitiko eta balio-aldaketa
  - c. Zaintza, erantzunkidetasuna eta bateragarritasuna
  - d. Genero-indarkeria

---

## SARRERA

---

Deierriko Udalak, udal txikia izan arren, urteak daramatza gizonen eta emakumeen arteko berdintasunarekin konprometituta. Dokumentu hau udalerririk berdintasunaren arloan duen egoeraren analisia eta Deierriko gizartean balioak aldatzeko udal-ekintza proposamena da.

Urteak dira berdintasuna sustatzeko ekintzak antolatzen dituztela Deierriin, eta biztanle guztiei zuzendutako jarduerak proposatzen saiatzen dira une oro; esate baterako, haurrentzako ludotekak edota udaleko teknikarientzako eta politikarientzako tailerrak.

Hala ere, beharrezkoa da aurrera eramaten diren ekintzak berrikustea eta gizarteak ekintza horiei egiten dien harrera, bilatzen dituzten helburuak eta benetan daukaten eragina aztertzea. Nahiz eta udalak berdintasunaren arloan biztanleak sentibilizatzeko lana egiten duen, egia esan, askotan zaila da jendea mobilizatzea mota horietako ekintzetan parte hartzeko, eta, batzuetan, bertan behera utzi behar dira bertaratzen ez direlako.

Hori dela eta, dokumentu honen helburua Deierriko egoera aztertzea da, bertako biztanleen interesekin bat datorren estrategia eta ekintza-plana garatzeko. Gizartearen beharretatik sortzen diren eta helburu orokor bati, hala nola, benetako berdintasuna lortzea, erantzuten dioten jarduerak egiteko behar adina tresna garatu nahi dira diagnostiko honen bidez.

Hortaz, diagnostiko honen bitartez, Deierriko Udalak berdintasuna lantzen jarraitu nahi du udalerriri mailan eta biztanleekin zuzenean. Berdintasuna sustatzeko eta dagoeneko ditugun baliabideak indartzeko, proiektu honek esparru horretan egiten den lana hobetzea du helburu. Era berean, berdintasunezko gizarte bat eraikitzeke genero-ikuspegia udal-prozesu guztietan txertatzeko pausuak eman behar ditugula iruditzen zaigu, eta proiektu hau aurrerapauso garrantzitsua da norabide horretan.

## A. JUSTIFIKAZIO TEORIKOA:

Udalerrian berdintasun-politikak garatzeko prozesuaren oinarritzko fase bat berdintasun-diagnostiko bat egitea da. Diagnostiko horren bitartez, udalerriko emakumeen eta gizonen errealtate desberdinen benetako argazkia egin daiteke eta sortutako politiketan txertatutako genero-ikuspegiaren gradua zein den ere ikusi. Diagnostikoa, beraz, berdintasun-plan bat diseinatzeko eta gerora abian jartzeko lehenengo pausua litzateke. Aurretiko informazioa edukitzea ahalbidetzen digun tresna da, udal-prozesu guztietan genero-ikuspegia txertatzeko estrategia eraginkorrago bat ezartzen lagunduko diguna.

**Genero-ikuspegia** analisi-tresnatzat, kategoria deskribatzailetzat eta aukera politikotzat har daiteke. Alde batetik, ikuspegi horrek sexu-genero aldagaien arabera sortzen diren botere-harremanak eta desberdintasunak detektatzen eta neurtzen ahalbidetzen du. Bestetik, botere-asimetria horiek eragiten dituzten kausak ezagutzen eta horiek gainditzeko mekanismoak formulatzen laguntzen du. Genero-ikuspegiak botererako sarbidean desberdintasuna eragiten duten gizartean eraikitako harremanak azpimarratzen ditu. Azkenik, genero-ikuspegia aukera politikoa dela diogu, izan ere, desberdintasunaren eta diskriminazioaren aurkako borroketarako jarrera eskaintzen du.

Era berean, hemen aurkezten den materialak **generoa** hartzen du oinarri, sexuen arteko harremanak arautzen dituen gizarte-eraikuntza eta kategoria gisa. Generoak gizarte jakin batean sexu-desberdintasunak nola definitzen, irudikatzen eta sinbolizatzen diren aztertzen du. Gaur egun, desberdintasun horiek bi sexuen arteko desberdintasun sozialak, politikoak eta ekonomikoak eragiten jarraitzen dute, eta prozesu horretan, emakumeak dira egoera txarrean daudenak. Alegia, genero-desberdintasunak gizarte-kostuak eta onurak modu desberdinean banatzeko mekanismo bat dira, eta gizonen eta emakumeen arteko botere-harremanak ezartzen dituzte.

Azken urtetan berdintasunaren arloan aurrerapenak egin diren arren, genero-harremanen bilakaera oso motela da eta horrek emakumeen egoera zailtzen du. Genero-estereotipoek, genero-rolen esleipenak eta lan-banaketak jasaten ari dituzten eraldaketa motelek berdintasunezko etorkizun batean pentsatzeko aukera ematen dute. Hala ere, desberdintasun sakonak oso errotuta daude oraindik **landa-eremuan**, eta horrek emakumeen lan-baldintzetan eta itxaropen pertsonaletan eragin berezia du.

Landa-eremuan benetako berdintasuna ahalik eta lasterren lortzeko, **berdintasun-politikak** ezinbestekoak dira. Genero-berdintasunak sexu bati edo besteari esleitutako ezaugarriak modu desberdinean eta

hierarkikoan balioesten dituzten desberdintasunak desagerraraztea dakar. Zentzu horretan, berdintasuna pertsona bakoitzari baliabide eta onura publikoak eskuratzeko aukera berdinak eskaintzea da, gizaki guztiek autodeterminazio-gaitasuna dutela defendatzen du eta legezko agintaritzaren aurrean pertsona guztiek gaitasun juridiko berbera dutela adierazten du. Berdintasun-politikek benetako berdintasunera irekitako testuinguru sozial bat bultzatzen dute, emakumeentzako eta gizonentzako antzeko aukerak ekarriko dituen, esparru sozial, ekonomiko eta politikoa aurrera egiteko genero-jarrerak eta genero-estereotipoek haien aukerak mugatu gabe.

Gaur egun, diagnostiko honek irudikatuko duen bezala, oraindik emakumeek gizonak baino zailtasun gehiago izaten dituzte, besteak beste, erantzukizuneko eta erabakiak hartzeko postuak eskuratzeko, lan munduan sartzeko eta mailaz igotzeko, soldata duina lortzeko, lana, familia eta bizitza pertsonala bateratzeko... Azken hamarkadetan ordea, emakumeen mugimendu asoziatiboak gora egin du eta geroz eta protagonismo gehiago irabazi du tokiko bizitzan, eta gizartea antolatzeko eta emakumeek esparru publikoan parte hartzeko modu berriak eratu ditu. Diagnostiko honen helburua **asoziazionismoaren** eragina aztertzea da, politika publikoak Deierriko biztanleen egunerokotasunera eramaterakoan. Hots, landa-eremuan emakumeen elkarleen papera oso garrantzitsua da, eta berdintasun-politika publikoak biztanleei hurbiltzeko eta parte-hartzea sustatzeko ezinbesteko baliabidea da. Hortaz, elkarreak ezinbestekoak dira berdintasunaren diskurtsoa gizartean sartzeko ahalbidetuko duen estrategia bat egiteko orduan.

Horregatik guztiagatik, berdintasun diagnostiko honen bidez, alde batetik, Deierriko berdintasunari buruzko ikuspegi pertsonalean eta esperientzia kolektiboan sakondu nahi da eta, bestetik, udalerrian dauden parte-hartze dinamiken berri eman, udalak arlo horretan eskaintzen dituen zerbitzuak hobetzeko.

Azkenean, diagnostikoak udalerraren, udalaren eta bertako biztanleen ezagutza hobea eskaintzen du. Udalerriko beharrak eta errealitatea ezagutzeko aukera ematen digu, eta udalerrian benetako berdintasuna lortzeko behar den estrategia garatzeko abiapuntua da.

## B. ARAU-ESPARRUA:

Diagnostiko hau egiteko, honako hauek dira erabilitako erreferentzia-esparru nagusiak:

### NAZIOARTEA:

- Nazio Batuen Gutuna (1945), Emakumearen aurkako bereizkeria-mota guztiak ezabatzeko Nazio Batuen Konbentzioa (1979).
- Emakumeari buruzko lau mundu konferentziak (1975, 1980, 1985 eta 1995).

### EUROPA:

- Erromako Ituna (1957).
- Amsterdameko Ituna (1997).

### ESTATUA:

- 1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzkoa.
- 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirako.

### FORU KOMUNITATEA:

- 33/2002 Foru Legea, azaroaren 28koa, emakumeen eta gizonen aukera berdintasuna sustatzekoa.
- 14/2015 Foru Legea, apirilaren 10ekoa, Emakumeen kontrako Indarkeriari aurre egitekoa.
- 17/2019 Foru Legea, apirilaren 4koa, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzkoa.

---

## METODOLOGIA

---

### A. PROIEKTUAREN HELBURUAK:

#### Helburu orokorra:

Berdintasunaren arloan toki-erakundearen egoera aztertzea, ibarraren errealitatera egokitzen diren programak bultzatzeko, eskualdearen berdintasunezko garapena ahalbidetuko dutenak eta emakumeen parte-hartze soziopolitikoak sustatuko dutenak.

#### Helburu espezifikoak:

- Genero-berdintasuna udalerriko edo eskualdeko berdintasunezko garapenean erantzukizun politikoa eta teknikoa dutenen lan-agendaren parte izaten laguntzea.
- Udalerriko edo eskualdeko garapen-estrategiak genero-berdintasunean eragin positiboa izaten laguntzea.
- Emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa eta esku-hartzea hobetzea ahalbidetuko duten hausnarketa eta ezagutza-lerro berriak sortzea.
- Emakumeek beren autoestimua, autonomia, eskubideak izateko eskubide-kontzientzia konpontzeko eta/edo garatzeko baliabideak sortzea, baita beren izateko eta munduan egoteko modua legitimatzen laguntzen duten gaitasun propioak ere.
- Udalerriko edo eskualde osoko emakumeen egoera eta posizioa hobetzeko bideak sortzea, batik bat genero-desberdintasuneko eta genero-diskriminazioko egoerak begi-bistakoak diren esparruetan.
- Emakumeak, beren elkarte bidez, hizketakide soziopolitikoak eta eskubide osoko biztanleak izan daitezten beharrezkoak diren baldintzak sortzea.
- Toki-erakundeko mugimendu asoziatibo feminista eta/edo emakumeen mugimendua indartzea.
- Berebiziko garrantzia eta eragina duten udalerrietako lekuetan, emakumeen parte-hartzea eta presentzia handitzea, haien erabateko herritartasunaren garapenaren pausu gisa.
- Toki-erakunde bali-aldaketa sustatzea, pertsonen sexuaren arabera esleitu ohi zaizkien rola eta estereotipoak ezabatzen laguntzen duten jardueren bidez.

## B. ITURRIAK ETA TRESNAK:

Datu kuantitatiboak biltzea:

- Biztanleriaren datuak biltzea eta aztertzea
- Online inkestak

Datu kualitatiboak biltzea:

- Online inkestak
- Elkarrizketa pertsonalak informatzaile giltzarriei
- Elkarrizketak erakunde giltzarriei
- 2006-2008 BERDINTASUN PLANAREN analisia
- Berrikuspen bibliografikoa

## C. INFORMAZIOA LORTZEA:

2005. urtean, Deierriko Udalak Emakumeen eta Gizonen Aukera Berdintasunerako I. Plana sinatu zuen 2006-2008 aldirako. Hemen aurkezten den diagnostikoa dokumentu hori berrikusten du eta bertan bildutako datuak eguneratzen ditu. Hori dela eta, dokumentazio-iturri nagusiak Deierriko I. Berdintasun Plana eta udalaren dokumentu eguneratuak dira.

Aipatzekoa da zaila dela Deierri buruzko datu zehatzak aurkitzea sexuaren arabera eguneratuta eta bereizita, nahiz eta iturri mota anitzengana jo. Ondorioz, diagnostiko honen datu kualitatiboek trataerak garrantzi handia du (pertsonek berdintasunari buruzko ikuspuntua zein den jakitea inoiz baino garrantzitsuagoa da).

Kuantitatiboak zein kualitatiboak diren tresna metodologikoak uztartuz, baliotsuak eta baliagarriak diren errealitateari buruzko hainbat ikuspegi har ditzakegu kontuan. Horrela, iritzi publikoaren analisi sistematikoa lortzeaz gain, izaera ukiezinagoa duen informazioa ere bildu daiteke, hala nola, gizarte-eragileen ikuspuntua, zeinen ekarpena garrantzitsua baita modu eraginkorragoan esku-hartze arloak eta aurrera eramane behar diren jarduerak proposamenak identifikatzeko. Nahiz eta metodologia kuantitatiboak datuak lortzen laguntzen duen, teknika kualitatiboekin osatu behar da, besteak baino datu sakonagoak lortzeko aukera gehiago eskaintzen dituelako.



## DEIERRI BURUZKO INFORMAZIO OROKORRA

Estellerriko eskualdean kokaturik dagoen udalerrria da Deierri, 19 kontzejuz osatuta dago eta 93,4 km<sup>2</sup> -ko hedadura du. Deierriko Udala kontzejuak antolatzen dituen erakundea da. Deierrik Urbasa eta Andia mendilerroekin egiten du muga iparraldean, Gesalatzekin ekialdean, Estella-Lizarrarekin hegoaldean eta Allin Ibarra eta Ameskoabarrenarekin mendebaldean.



Gaur egun, alkateak eta zortzi udalkidek (lau emakume eta lau gizon) osatzen dute udala. Kontzejuen antolaketa administratiboari dagokionez, egun, zazpi kontzejuetako presidentek emakumeak dira eta gizonak, berriz, hamabi kontzejuetan dira presidente. 2005eko Deierriko I. Berdintasun Plana egin zenetik, emakumeen parte-hartzeak gora egin du organo hauetan baina, hala ere, emakumeek ordezkari txikia dute oraindik erakunde horretan.

Deierriko Udalak hainbat erakundetara parte hartzen du:

- Jurramendiko Mankomunitatea
- Irantzu Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea
- Urbasa Patronatua eta Udala Kontzejuen Federazioa
- Irantzuko Lurrak turismo partzuergoa
- Andia Zerbitzuen Mankomunitatea
- ANIMSA
- TEDER
- Lizarraldeko Turismo Partzuergoa
- Nafarroa Ezagutu Sarea
- Donejakue Bideko Elkarte

Erakunde hauek funtsezkoak dira berdintasunaren arloko zerbitzuak eta baliabideak eskuratzeko orduan.

Deierriko egungo biztanleria, 2019ko irailaren 11n, 1.544 pertsonakoa da. Horietatik 742 emakumeak dira (% 48) eta 802 gizonak (% 52).

1. taula. Kontzejuen araberako biztanleriaren estatistika (2019/09/11)

<b>Kontzejua</b>	<b>Gizonak</b>	<b>Emakumeak</b>	<b>Guztira</b>	<b>Ehunekoak</b>
Aizkoa	39	44	83	% 5,38
Allotz	49	53	102	% 6,61
Arandigoien	50	44	94	% 6,09
Aritzala	48	42	90	% 5,83
Aritzaleta	23	17	40	% 2,59
Bearin	107	92	199	% 12,89
Eraul	39	35	74	% 4,79
Errezu	74	43	117	% 7,58
Gorozin	18	18	36	% 2,33
Hiriberri	33	29	62	% 4,02
Ibiriku	30	26	56	% 3,63
Iruñela	28	24	52	% 3,37
Lakar	33	32	65	% 4,21
Lorka	67	68	135	% 8,74
Murelu	19	15	34	% 2,20
Murugarren	35	34	69	% 4,47
Ugar	20	23	43	% 2,78
Zabal	38	42	80	% 5,18
Ziritzako etxeak	3	4	7	% 0,45
Zurukuain	47	56	103	% 6,67
<b>GUZTIRA</b>	802	742	1.544	100

Biztanle-dentsitate oso baxua duen udalerria da Deierri. Bere hedadura kontuan harturik, 93,40 km<sup>2</sup>, udalerriko biztanle-dentsitatearen ratioa 16,53 biztanlekoa da km<sup>2</sup>-ko. Nafarroan, aldiz, ratioa 55,65 biztanlekoa da km<sup>2</sup>-ko eta, estatu mailan, batezbestekoa 84,42 biztanlekoa da km<sup>2</sup>-ko.


Biztanle horiek sakabanaturik dauden 19 kontzejuetan daudenez, are zailagoa da baliabideak eta zerbitzuak kudeatzea. Bearin da biztanle gehien dituen kontzejua, Lizarratik kilometro gutxira dagoena. Bere atzetik, Lorka eta Errezu daude, Ibarren mugan kokatuta daudenak, Villatuerta eta Gesalatzekin hurrenez hurren.

Adinaren araberako segmentazioak biztanleria zahartuta dagoela erakusten digu. 65 urtetik gorako pertsonak osatzen dute eroldaren % 27, eta 20 urtetik beherakoek % 17. Hala ere, kopuru horiek 2006tik aldatu dira, izan ere, 20 urtetik beherakoek kopurua % 6 igo da.

2. taula. Adinaren arabera biztanleriaren estatistikak (209/01/01)

Adina	Gizonak	Emakumeak	Guztira
16 urtetik behera	93	100	193
16 urtetik 30era	97	96	193
31 urtetik 45era	130	97	228
46 urtetik 64era	280	222	502
65 urtetik gora	199	214	413
<b>GUZTIRA</b>	<b>799</b>	<b>729</b>	<b>1.528</b>

0 eta 30 urte arteko adin-taldean, gizonen eta emakumeen kopurua antzekoa da. 31 eta 65 urte arteko adin-taldean ordea, emakumeen proportzio baxua oso nabarmena da, baita 65 urtetik gorako emakumeen batezbestekoa ere, gizona baino handiagoa dena. Landa-eremuetako gazteen despopulazioa eta emakumeen bizi-iraupena kontuan hartuta, biztanleria horren ehunekoa oso esanguratsua da Deierriin.



Hezkuntza arautuari dagokionez, Deierri ez du ez Lehen Hezkuntzako, ez Bigarren Hezkuntzako ikastetxerik. Orokorrean, eta bizi diren kontzejuren kokapenaren arabera, Lehen Hezkuntzako ikasleak Abartzuzako edo Lizarrako ikastetxera joaten dira, eta Bigarren Hezkuntzako ikasleak, ordea, Lizarrara.

Deierriko asoziazionismoari dagokionez, mota desberdinetako hainbat elkarte daude: Lagunartean elkarte (emakumeena/soziokulturala), Altikogaña Elkarte (soziokulturala), Riezu Cross Racing automobil-taldea (kirol-elkarte), Kaskiludi (kulturala)... Gure aztergaia kontuan izanda, Lagunartean elkarteak izugarritzko garrantzia du, berdintasunaren arloan azken urteetan egin duen lanagatik.

## BERDINTASUNAREN EGOERAREN ANALISIA ESKUALDEAN



Aurkezten dugun dokumentua Deierriko genero-desberdintasunen egoerari buruzko analisi bat da. Txostenaren helburu nagusia Deierriko udalerriko egoeraren, beharren, eskura dituen baliabideen eta gabezien ikuspegi zehatza aurkeztea da.

### INKESTAK:


Txosten hau egiteko, online inkestak eta elkarrizketa pertsonalak egin ditugu. Guztira 70 pertsonek parte hartu dute elkarrizketa pertsonalean, eta, horrek Deierriko biztanleen errealitatera hurbiltzea ahalbidetzen digu. Inkestak anonimoak izan dira. Horietako bakoitza lau ataletan antolaturiko galdetegi batean datza: informazio orokorra, ahalduntzea eta parte-hartze soziopolitikoak, bateragarritasuna eta genero-indarkeria.

### INFORMAZIO OROKORRA:

Herria	Gizona	Emakumea	Ez binarioa	GUZTIRA
Aizkoa	0	3	0	3
Lakar	5	5	1	11
Zurukuain	3	20	0	23
Ibiriku	1	1	0	2
Hiriberri	0	6	0	6
Allotz	0	4	0	4
Gorozin	0	3	0	3
Lorka	0	8	0	8
Murugarren	1	2	0	3
Murelu	0	3	0	3
Eraul	0	3	0	3
Arandigoien	0	1	0	1
<b>GUZTIRA</b>	10	59	1	70



Inkestan parte hartu duten 70 pertsonetatik, ehuneko oso handia emakumeak dira, % 84 zehazki. Bestalde, inkestan parte hartu duten pertsonen adinari dagokionez, gehienek 35 urtetik gora dituzte, % 57k. Gizonezkoen kasuan, garrantzitsua da aipatzea 26 eta 35 urte artekoen parte-hartze eza.




Inkesta erantzun duten gizonen % 60 ezkontuta daude edo bikotekidea dute eta % 40 ezkongabe daude. Emakumeen kasuan, parte hartzaileen % 59 ezkontuta daude edo bikotea dute, % 32 ezkongabe daude eta % 5 dibortziatuta.

«Adina» eta «egoera zibila» aldagaiak gurutzatzen baditugu, aldagai horiek estuki lotuta daudela ikus dezakegu: 16 eta 25 urte arteko emakume gehienak ezkongabe daude, 26 eta 35 urteko arteko emakumeek batez ere bikotea dute eta 36 urtetik gorako emakumeak ezkontuta daude.




«Etxe motari» dagokionez, «bikotea + 2 seme-alaba» etxea gehiengo dela ikus dezakegu, kasuen % 41,4. Ondoren, seme-alabarik gabeko bikoteen etxeak daude, kasuen % 20. Pertsona bakarreko etxeei dagokienez, mota horretako etxeetan bizi direnak 50 urtetik gorakoak direla eta gehienak ezkongabeak direla ikus dezakegu.

Enpleguari dagokionez, parte hartzaileen % 88,4k ordaindutako enplegua eduki du noizbait, eta gainerako % 11,6a 25 urtetik beherako emakume ikasleak dira nagusiki.




Inkestan parte hartu duten pertsona gehienek besteren konturako lan egiten dute eta, ondoren, autonomoak daude. Langile horietatik, gehiengoak (% 70) lanaldi osoko enpleguak ditu. Inkestatutako pertsonen % 15,7k lanaldi-murrizketa edo lanaldi-erdia dute eta horietatik gehienak emakumeak dira. Halaber, 16 eta 50 urte arteko emakumeak lanaldi-murriztuak aukeratzeko dituztenak direla ikus dezakegu. «Adina», «lanaldi mota» eta «etxe mota» aldagaiak gurutzatuz gero, ondoriozta dezakegu alde batetik, lana eta ikasketak, eta, bestetik, lana eta zaintza bateragarri egiteko modu bat dela.




### AHALDUNTZEA ETA PARTE-HARTZEA:

Udalerrian benetako berdintasuna bilatzen duen udal batek landu behar duen funtsezko ardatzetako bat da emakumeen ahalduntzea, emakumeen parte-hartze soziopolitiko eta balio-aldaketa gizarlean. Ardatz honen bitartez, alde batetik, emakumeen erabateko herritartasuna lortu nahi da, haien ahalduntzearen bidez bizitzako esparru guztietan parte hartzera bultzatuz. Bestalde, gizarte-balio patriarkalak hautsiz, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren gizarte-balioa sustatzea du helburu.



Asoziazionismoari dagokionez, inkestatutako pertsonen artean % 27,1 ezein kolektibo/elkartetako kide da. Gainerako % 72,9tik, gehienak elkarte soziokulturaletako eta/edo emakumeen elkarteetako kideak dira eta, ondoren, kirol-elkarteetakoak. Gizonen kasuan, kirol-elkarteak eta elkarte soziokulturalak gailentzen dira. Emakumeen kasuan, soziokulturalak eta emakumeen elkarteak.

Deierriko Udalak antolatzen dituen jardueren ezagutzari buruzko eta horietan parte-hartzeari buruzko emaitzak honako hauek izan dira:



Parte-hartzaileen % 42,86k ez ditu udalak berdintasunaren arloan sustatzen dituen jarduerak ezagutzen, % 28,57k horietako batzuk ezagutzen ditu eta % 28,57k erakundeak arlo horretan egiten duen lanaren berri du. Alabaina, jardueretan parte hartzeko orduan, inkestatutakoen % 54k aitortzen du ez duela parte hartzen. Inkestan parte hartu duten gizonen artean, %80k dio ez duela jardueretan parte hartzen ezagutzen dituen arren.

«Ezagutzen al duzu udalak bultzatutako berdintasun-neurririk?» galderari erantzunez, parte-hartzaileen % 77,1k ezetz esan du. Beraz, erakundearen berdintasunaren arloan egiten den barne-lanari buruzko informazioa modu eraginkorrean ez dela jakinarazten ari ondoriozta dezakegu. Aipatutako neurriak ezagutzen dituzten pertsonen artean, hauek dira arrakastatsuenak:

- M8 eta A25 kanpainak
- Montalban Gizarte Etxeak bultzatutako hitzaldiak eta tailerrak
- Herrietako eraso sexisten aurkako jaietako kanpaina

Garrantzitsua da hipotesi hau aipatzea: inkestan parte hartu duten pertsonak nola edo hala ibarreko dinamiketan inplikaturik daude, eta, ondorioz, inkestak ez digu Deierriko biztanleek jardueran parte-hartzearen irudi guztiz errealak eskaintzen. Horretarako, hurrengo atalean parte-hartzea aztertuko dugu funtsezko informatzaileei egindako elkarrizketen bitartez.

#### GENERO-INDARKERIA:

Ondo dakigun bezala, emakumeen aurkako indarkeria da generodesberdintasunaren eta genero-diskriminazioaren adierazpenik handiena, eta Giza Eskubideen urraketa da. Indarkeria horrek oinarrizko eskubideei eragiten die, hala nola bizitzari, osotasun fisiko eta mentalari eta osasunerako eskubideari. Horiek guztiek, eta beste batzuek, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren oinarrizko printzipioa urratzen dute. Hortaz, indarrean dauden bitartean, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun osoa eta eraginkorra egiteke dago.

Deierri udalerria txikia denez, ez du eskumenik genero-indarkeriaren arloan. Eskumen horiek Irantzu Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearen esku daude. Orain arte, udalaren lana sentibilizazioaren eta prebentzioaren ingurukoa izan da, kanpainen bitartez.


Inkestan parte hartu duten gehienek (% 74,28) adierazi dute indarkeriaren biktima diren emakumeek arduratzeko baliabideak ezagutzen dituztela. Halaber, % 78,57k adierazi dute ez dutela zerbitzu horiek erabili dituen inor ezagutzen.



**BATERAGARRITASUNA:**

Lana eta bizitza pertsonala bateragarri egiteko, langileek bateragarri egin behar dituzte, alde batetik, lan-arloa eta bestetik, arlo pertsonala ahalik eta zentzurik zabalenean (familia-beharrak, behar pertsonalak eta indibidualak, aisialdiaren kudeaketa, etab.). Udalek, Toki-erakunde gisa, bai biztanleei, bai langileei, ongizatea eta bizi-kalitatea eskaini behar dizkiete, zaintzaren etikaren eta lana, familia eta bizitza-pertsonalaren bateragarritasun erantzunkidearen garapenaren bitartez.

«Nork egiten du etxeko lana» galderari dagokionez, inkestatutakoen % 54,3k esan dute «emakumeak gehiago». Aldagai hori objektiboa dela uste dugu, alegia, ez da iritzia ezta pertzepzioa ere, etxean lan gehiago egiten duenari buruzko egitate egiaztatu bat baizik. % 31,4k adierazten du emakumeak eta gizonak lan berbera egiten dutela etxean, eta nahiko esanguratsua da hori esaten duten pertsona gehienak 16 eta 35 urte arteko emakume gazteak izatea. % 7,1ek uste du emakumeak bakarrik egiten duela lan, eta, kasu horietan, gehienak emakume ezkongabeak, dibortziatuak edo alarguntsak dira.



Etxeko eta zaintza-lanak balioesten diren usteari dagokionez, parte hartzaileen % 64,3k uste du lan horiek ez direla baloratzen eta, aldiz, % 35,7k kontrakoa pentsatzen du.

Bestalde, parte hartzaileen % 90ek uste dute zaintza arloan ez dagoela berdintasunik, eta beste % 10ek esparru horretan berdintasuna dagoela uste dute. Azken talde horretako gehienak 26 eta 50 urte arteko emakumeak dira.

## ELKARRIZKETAK:

Diagnostiko hau egiteko, Deierriko Udalerriko biztanleen parte-hartzea ezinbestekoatzat jo dugu eta, horretarako, udaletxeko hainbat pertsonari eta elkarte-sarearen ordezkari diren hainbat pertsonari elkarrizketak egin zaizkie. Hala ere, ezinezkoa izan da momentu honetan giltzarri diren pertsona eta erakunde batzuen iritzia jasotzea. Gai hori zintzilik dago eta hurrengo prozesuan jorratu daiteke.

Elkarrizketak egin zaizkie Deierriko Udaleko udalkideei, udaletxeko langileei eta Lagunartean elkarteari, Ibarren elkarte-sarearen erreferente nagusi gisa.

## BERDINTASUN ETA GAZTERIA ZINEGOTZIAK:

Azken urteotan, Deierriko Udalaren berdintasunarekiko konpromisua handitzen joan da, eta horren adibide da diagnostiko hau, udalerrian benetako berdintasuna lortzeko beharrezkoak diren ekintzak planifikatzeko tresna izatea helburu duena.

Gobernantzari dagokionez, berdintasun eta gazteria zinegotziek 2006ko Berdintasun Plana zaharkituta dagoela, teknikoegia dela eta gaur egun erabilgarria ez zaiela deritzote. Haien ustez, erakundearen berdintasun-arloari buruzko formakuntza eskasa da eta horrek genero-ikuspegia duen edozein ekintza abian jartzea zailtzen du.

Gobernu-taldeko ordezkariak adierazi dute udalerriko biztanleek berdintasunarekiko duten jarrera, oro har, arduragabea dela. Generorolak eta genero-estereotipoak oso presente daude Deierriko egunerokotasunean, jarrera eta hizkuntza ez inklusiboaren bidez.

Horrez gain, eskualdearen ezaugarriek parte-hartzea zailtzen dutela uste dute: despopulazioa, herrien sakabanaketa, kontzejuen arteko sare-lanik eza, gazten jendearen parte-hartze falta... Deierriko biztanleen eta, zehazki, emakumeen parte-hartze soziopolitikoa ulertzeko funtsezko faktoreak dira.

Bateragarritasunari dagokionez, zinegotzien aburuz, udalak eskaintzen dituen zerbitzuek, ludotekak eta jubilotekak, funtzionatzen dute eta funtzio garrantzitsua betetzen dute familientzat. Alabaina, genero-indarkeriaren arloan, Estella-Lizarra da erreferentzia eta udaletxea ez da kontu horietan sartzen.

#### ANIMATZAILE SOZIOKULTURALA:

Duela zenbait urtetik, animatzaile soziokulturala dago eta bere zereginen artean berdintasuna sustatzea dago. Azken urte hauetan, berdintasun-partida egoteak eginkizun hori garatzea ahalbidetu du, izan ere, gaitasun ekonomiko handiagoa du gai horrekin zerikusia duten jarduerak aurrera eramateko.

Udaletxeko animatzaile soziokulturalaren iritziz, berdintasunaren arloan erakundeak egiten duen zeregin nagusia sentibilizazioa da. Arrakasta handiena duten jardueren artean, herriz-herri egiten diren pintxopoteak eta txikimugi programa daude. Hala ere, jendea mobilizatzeko zailtasun handiak daude, herrien arteko batasunik ez baitago.

Animatzaile soziokulturalak Lagunartean elkarteak egiten duen lana ezinbestekoa dela uste du, izan ere, Deierri dinamizatzen dute eta herrien arteko zubiak sortzen dituzte. Alabaina, biztanleriaren beste sektore askotara iristea zaila da.

#### LAGUNARTEAN ELKARTEA:

Gure aztergairako, elkarterik garrantzitsuena Lagunartean da. Elkarteak 25 urte daramatza lanean ibarra dinamizatzeko eta emakumeen aktibazio soziopolitiko bultzatzeko. Gaur egun, 190 bazkide ditu, gizonak eta emakumeak. Elkarte finantzatzeko, udalaren urteko diru-laguntza eta bazkideek ordaintzen dituzten urteko kuotak erabiltzen dira. Belaunaldi-arteko elkarte baldin bada ere, non adin eta jatorri desberdinetako gizon eta emakumeak dauden, aipatu behar da kide gehienak 50 urtetik gorako emakume helduak direla. Lagunartean-eko batzordeak uste du gaur egun 30 eta 45 urte arteko emakumeen belaunaldi-hutsune nabarmena dagoela. Bestalde, azken M8en ondorioz feminismoak jasan duen gorakadatik aurrera, neska gazteak gehiago mobilizatzen hasi direla ikusi dute, eta horrek elkartearen eta bere balioen berrikuntza ekar dezake.

Jarduerei dagokienez, Lagunartean-ek urteko ikastaroak eta ekintza zehatzak antolatzen ditu: antzerkiak, hitzaldiak, txangoak, kanpainak data zehatzetan, hala nola, M8an eta A25ean. Hala ere, jarduerak programatzerako orduan zurrak dira. Kideek uste dute elkarteek eta udalak batzuetan jarduera asko antolatzen dituztela eta ondorioz, egutegia zereginenez betetzen da. Era berean, jendea beren herritik ateratzera bultzatzeko zailtasunak daudela onartzen dute. Lurraldearen sakabanaketak eta Lizarrarekiko hurbiltasunak, non jende askok aisialdia pasatzen duen, emakumeen parte-hartzea zailtzen du eta zenbait ekintza programatzeko aukera mugatzen da.

Lagunartean-eko zuzendaritza batzordearen arabera, berdintasunaren inguruko bi joera daude ibarrean. Adibidez, aldarrikapen feministak beretzen dituen eta udalerrian berdintasuna sustatzeko egiten diren ekintzen alde dagoen biztanleriaren sektorea dago. Hala ere, hori «berdintasunaren irudikeriaren» parte izan daitekeela uste dute. Pertsona gehienak berdintasunaren alde egon arren, biztanleriaren sektore batek oraindik aldaketarekiko erresistentzia handia erakusten du. Lagunartean-ek uste du egoera hau antzekoa dela landa-eremuan eta hirian, baina haien ustez, herrietan emakumeen arteko laguntza-sareak indartsuagoak dira eta familiaren kulturak berdintasuna errazteko joera du zenbait alderditan.

## 2006-2008 BERDINTASUN PLANA

Deierriko Udalak 2006-2008 urteetan garatu zen berdintasun-plan bat du. Plan hori Nafarroako Berdintasunerako Institutuak toki-erakundeetan berdintasuna txertatzeko egin beharreko ibilbidearen aurrekoa da. Ibilbide hori toki-erakundeek berdintasunaren arloan egiten zituzten ekintzak koordinatzeko garatu zen. 2006-2008ko Berdintasun Plana ibilbide horren aurretik sortu zen, eta hainbat lan-ardatzetan egituratzen da: berdintasuna lan-arloan, berdintasuna kirolean eta berdintasuna aisialdian.

Plan honen garapenaren bitartez zenbait helburu lortu dira. Horien artean garrantzitsuena toki-erakundeetan berdintasunaren gaiari inportantzia eman izana da. Horrez gain, data zehatzetan (M8 eta A25) kanpainak egin dira eta udalak orain lokal bat dauka elkarteentzat. Azken urteotan, biztanleriaren hainbat sektoreei zuzendutako mota anitzeko jarduerak egin dira.

Hala ere, 2006-2008ko Berdintasun Plana aztertu ondoren, ahulezia nabarmenak aurkitu ditugu plana modu eraginkorrean ezartzeko eta erabiltzeko. Deierriko Udalaren lehen berdintasun-plan honek ez du zehazten zein organo edo pertsonak hartzen duen bere gain dokumentuan aipatzen diren ekintzak aurrera eramateko erantzukizuna. Gainera, ekintza eta esparru asko jorratu nahi dira, zehaztu gabe eta egutegian finkatu gabe daudenak. Lehen berdintasun-plan horrek bi urtetan esku-hartze esparru asko jorratzea zekarren, giza-baliabideak, baliabide ekonomikoak eta baliabide sozialak kontuan hartu gabe.

Dokumentu horrek balio izan zuen berdintasunari ateak irekitzeko Deierriko Udalean. Egun, ordea, Deierriko lehen Berdintasun Plana zaharkituta dago eta ez die erantzuten udalerriko biztanleen beharrei.

ONDORIOAK

ARLOA	Indarguneak	Ahulguneak
<b>Tokiko gobernantza eta genero-zeharkakotasuna</b>	Konpromiso politikoa	Berdintasunaren arloko formakuntza falta da
	Berdintasunerako berariazko aurrekontu-partida	Berdintasun Plan zaharkitua
	Berdintasuna sustatzen duten elkarten jardueretarako diru-laguntza	Berdintasunaren arloan erakundeetan dauden erantzukizunak nork hartzen dituen bere gain zehaztu gabe dago
	NABlren diru-laguntzekin urteko ekintzak sustatzea	Sakabanaketak herrien batasuna eta koordinazioa zailtzen du
<b>Emakumeen aurkako indarkeria</b>	Genero-indarkeriaren inguruko sentsibilizazio-kanpainak egiten dira	Genero-indarkeriaren arretarako baliabideei buruzko informaziorik eza
<b>Emakumeen ahalduntzea, parte-hartze soziopolitikoa eta balio-aldaketa</b>	Ahalduntzeko eta balioak aldatzeko jarduerak sustatzea	Urteko momentu zehatzetan jarduera gehiegi
	Mankomunitateko herrietako emakumeen elkarten arteko batasuna	Ibarreko gizarte-eragileen arteko urteko programazio koordinatua falta da
		Sektore gazteenek ez dute parte hartzen
<b>Zaintza, erantzunkidetasuna eta bateragarritasuna</b>	Txiki-mugi programa Erretiratuen elkarteak Ludotekak jai-egunetan	Bateragarritasun-zerbitzurik eza programatutako jardueretan

---

## EKARPENAK ETA GOMENDIOAK

---

### **GENERO-ZEHARKAKOTASUNA ETA GOBERNANTZA**

- Aukera Berdintasunerako Plana berritzea, erakundearen genero-ikuspegiko jardun-politika bideratzeko eta orientatzeko tresna gisa, emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasuna benetakoa eta eraginkorra izan dadin baldintzak sustatzeko.
- Erakundeko politikariei eta administrazio-langileei berdintasunaren arloko formakuntza ematea beharrezkoa deritzogu, kide bakoitzaren eskumenen eta eginkizunen arabera genero-ikuspegiaren zeharkakotasunean trebatzeko.

### **EMAKUMEEN AHALDUNTZEA, PARTE-HARTZE SOZIOPOLITIKOA ETA BALIO-ALDAKETA**

- Ibarreko emakumeen elkartearekin batera urtero jarduerak programatzea, ahaleginak helburu komun batera bideratzeko.
- Biztanleekiko komunikazioa sare sozialen bidez hobetzea.
- Berdintasunarekin zerikusia duten jarduerak modu ibiltarian eta beste jolas-jarduera batzuekin batera egitea, jende gehiago erakartzeko.
- Irantzu Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko baliabideak erabiltzea.
- Jarduera kopurua murriztea, baina haien eragina handitzea.

### **ZAINZA, ERANTZUNKIDETASUNA ETA BATERAGARRITASUNA**

- Deierriko Udala sartzea Bateragarritasunaren Aldeko Udal Itunak programan.
- Udal Itunak hainbat helbururi begira elkarrekin lanean aritzeko konpromisoan lotzen ditu entitate sinatzaile guztiak (kasu honetan, kontzejuak, Irantzu Oinarrizko Gizarte Zerbitzua eta Deierriko Udala), bertako herritarrei beren bizitza familiarra, pertsonala eta profesionala uztartzen laguntzeko. Udal Itunak herritartasun aktiboa garatzen du, eta gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna finkatzen laguntzen du.

### **GENERO-INDARKERIA**

- Genero-indarkeriaren arloan sentibilizazioa eta prebentzioa helburu duten ekintzak hobetzea eta zabaltzea.
- Emakumeei genero-indarkeriaren arloan dauden zerbitzuei eta baliabideei buruzko informazioa jasotzeko eskubidea bermatzea.
- Jaien aurreko kanpaina eta A25 kanpaina genero-indarkeriaren aurkako estatu-itunaren barruan programatzea.